

# HAUR HEZKUNTZA GRADUA

## Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea



### V MODULUA

## KONPETENTZIEN LANKETA ESKOLAN

2023/2024 ikasturtea

## Aurkibidea

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK.....	3
1. Sarrera.....	5
2. Konpetentziak.....	6
3. Taldeen egitura eta funtzionamendua.....	7
4. Lan gidatua.....	7
4.1. Eszenatokiak.....	8
5. Ebaluazioa eta entregatzekoak.....	10
5.1 Kalifikazioari buruzko zehaztapenak.....	10
5.2. Ebaluazio irizpide orokorrak.....	11
5.3. Gaitasun bakoitzari dagozkionak.....	11
6. Lana egiteko irizpideak eta zergatia.....	12
7. ERANSKINAK.....	18

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

DATA	EGITEKOA	Nork
Irailak 18	<p><b>Diziplinarteko lanaren aurkezpena egingo da 3.6 Gelan, 10:30tan.</b></p>	<p><b>Irakasle taldeak:</b></p> <p>Estibaliz Jz. de Aberasturi (Koord.), Oihane Otaegi, Olatz Bastarrica, Izaskun Baro, Maribi Urruzola (Koord.), Josu Sanz, Miren Koro Jauregi, Mikel Gartziarena, Amaia Elizalde eta Haritz Monreal.</p>
Irailak 25	<p><b>Ikasle talde bakoitzaren arduradunak Estibaliz Jz. de Aberasturi (<a href="mailto:estitxu.aberasturi@ehu.eus">estitxu.aberasturi@ehu.eus</a>) irakasleari bidaliko dio EHUko emailaren bitartez:</b></p> <p><b>1. Zein hiru gai aukeratu dituzten (lehentasunaren arabera).</b></p> <p>Ikasle taldeak ALFABETIKOKI egingo dira (ikasle zerrenda ofiziala jarraituz). Talde hauek bost ikaslez osatuta egongo dira eta ez da aldaketarik onartuko ikasleen artean.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ DILAN-ean EZ dute parte hartuko: ERASMUS programan daudenek, ebaluazio jarraia egiten ez dutenek, beste graduetatik (LHtik) datozenek ezta praktikaldia kanpoan egingo dutenek. Gutxienez, lau irakasgaitan matrikulatuta egon behar da modulu lana egin ahal izateko, bestela, EZ da parte hartuko.</li> <li>▪ DILAN-ean parte hartuko dute soilik ebaluazio jarraia egiten dutenek.</li> </ul> <p><b>2. HITZARMENA adostu behar da (begiratu 1. eranskina).</b></p>	<p><b>Ikasle talde bakoitzaren arduradunak</b></p>
Irailak 29	<p><b>Irakasle taldeak, emailez, ondoko informazioa bidaliko dio talde bakoitzeko arduradunari:</b></p> <p><b>1. Landu beharreko gaia</b></p> <p><b>2. Taldearen tutore izango den irakaslea</b></p> <p><i>Momentu horretatik aurrera, taldeak egokitu zaion irakaslearekin funtzionatuko du.</i></p>	<p><b>Irakasle taldeak</b></p>
Urriak 10	<p><b>Talde bakoitzaren arduradunak T1 dokumentua eta HITZARMENA (1. eranskina) tutoreari bidali (ikusi 5. atala).</b></p>	<p><b>Ikasle taldeak</b></p>

DATA	EGITEKOA	Nork
Urriak 27	<b>Ikasle bakoitzak B dokumentua tutoreari bidali.</b>	<b>Ikasle bakoitzak</b>
Urriak 30tik azaroak 3ra	<b>Lanean sakontzeko astea:</b>  <i>8. aste honetan, klase ordu guztiak modulurako erabiliko dira, lan taldeek lanak aurreratu ditzaten eta bere irakaslearekin (gutxienez) eta beste irakasleekin tutoregoak egiteko (lanaren ikuspegi globala diziplinartekoa delako)</i>	<b>Irakasle-ikasle taldeak</b>
Azaroak 3	<b>Talde bakoitzak T2-1 dokumentua eta T2-2aren lehen zirriborroa tutoreari bidali.</b>	<b>Ikasle taldeak</b>
Abenduak 15	<b>Talde bakoitzak behin betiko T2-2 dokumentua tutoreari bidali.</b>  <b>AKTAK bete</b> (begiratu 2. eranskina)	<b>Ikasle taldeak</b>
Otsailaren 8tik 16ra	<b>T3 Narrazio kreatiboa prestatu eta aurkeztu:</b>  <i>19. astean, klase-ordu guztiak talde bakoitzak Narrazio kreatiboa prestatu eta aurkezpenak egiteko erabiliko dira.</i>	<b>Ikasle taldeak</b> (irakasle eta ikasle guztien aurrean)

## 1. Sarrera

Aurreko ikasturteetan egin den moduan, honetan ere, diziplinarteko lan bat garatu beharko duzue. Aurtengoa urte osokoa izango da eta bere ardatza ondorengoa: **KONPETENTZIEN LANKETA ESKOLAN**.

Dagoeneko dakizuenez, taldean egin beharreko lana izango da eta hirugarren ikasturteari dagozkion zazpi irakasgaietako ekarpenak jasoko dituzue. Irakasgaien irakasle-taldeak diziplinarteko lan hau diseinatu, jarraipena egin eta ebaluatuko du.

Egitekoa hurrengo hau izango da: Eszenatoki batetik abiatuz, Haur Hezkuntzarako ikaskuntza-irakaskuntza proposamen baten diseinua. Erabiliko den metodologia Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI) izango da.

Lan hau burutzeko hainbat egun eskainiko dira: lehen lauhilekoan (**urriak 30tik-azaroak 3ra**) eta bigarren lauhilekoan (**otsailaren 8tik-16ra**).

Honako hauek dira irakasgaiak:

Arte plastikoak eta ikuste-kultura Haur Hezkuntzan II (1 kreditu) Estibaliz Jz. de Aberasturi (Koordinatzailea)	<b>DIZIPLINARTEKO LANA: KONPETENTZIEN LANKETA ESKOLAN</b>
Garapen Psikomotorra II (1 kreditu) Oihane Otaegi eta Olatz Bastarrica	
Pentsamendu Matematikoa eta bere didaktika (0'5 kreditu) Izaskun Baro	
Musika adierazpenaren garapena II (1 kreditu) Maribi Urruzola (Koordinatzailea)	
Zientzia esperimentalak Haur Hezkuntzan (0,5 Kreditu) Josu Sanz	
Hizkuntzaren didaktika eta Atzerriko Hizkuntza (1 kreditu) Miren Koro Jauregi / Mikel Gartziarena	
Hizkuntzaren eta Literaturaren didaktika (1 kreditu) Amaia Elizalde / Haritz Monreal	

## **2. Konpetentziak**

---

Hirugarren kurtsorako lehenetsitako konpetentziak

### **1. G011. LAN AUTONOMOA ETA TALDE LANA**

#### **G004. BIZIKIDETZA ETA GATAZKEN KONPONKETA**

Haur Hezkuntzako arazoak identifikatu, eta aztertu, hasieran bakarka eta taldeka ondoren, zalantzak azaltzerakoan (terminologia, kontzeptuak, egoerak...) besteen ideiak eta iritziak errespetatuz.

### **2. G013. HEZKUNTZA-IKERKETA**

Hainbat iturritatik taldeka informazioa bildu eta antolatu, Haur Hezkuntzako ezagutza eremuak kontutan izanik eta ikuspegi guztiak interpretatuz.

### **3. G012. HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO DISEINUA**

#### **G001. DIZIPLINARTEKOTASUNA CURRICULUM-ARLOETAN**

#### **G003. IKASKUNTZA-TESTUINGURUAK ETA DIBERTSITATEA**

Lehen haurtzaroko arazoak ebatzi eta konponbide izan daitezkeen hezkuntza esku-hartzeak taldean egindako txosten idatzi batean adierazi.

### **4. G015. KOMUNIKAZIO-KONPETENTZIAK**

Haur Hezkuntzako egoerak (espazioa, nutrizioa, egokitzapena...) modu kreatiboan (arte plastikoa, musikala, antzerkia, ipuinak... erabiliz) aurkeztu jende aurrean, plazera, eztabaida eta hausnarketa suspertuz.

### 3. Taldeen egitura eta funtzionamendua

Taldeak lau ikaslez osatuko dira, zerrenda alfabetikoaren arabera.

3.1 Hitzarmena adostu (1. eranskina)


3.2 Aktak bete (2. eranskina)

### 4. Lan gidatua

Eszenatoki batetik abiatuz, Haur Hezkuntzarako ikaskuntza-irakaskuntza proposamen baten diseinua egin behar duzue. Erabiliko den metodologia Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI) izango da.

Narrazio kreatibo baten gainean eraikitako diseinua izango da.

Lanaren eskema ondorengoa izango da:



Lan gidatuaren inguruan informazio gehiago behar baduzue, ikus 6. atala.

## 4.1. Eszenatokiak (Talde bakoitzak eszenatoki ezberdina izango du)

### 1. IDENTITATEA ETA GENEROA ESKOLAN

5 urteko ikasgelan zaude eta mutil itxura baina Oihane deitzen den haur bat dago, gainera, neska dela esan du bizpahiru aldiz. Betidanik izan du jarrera ez-normatiboa bere genitaletan oinarritua esleitu zaion sexu-identitatearekin aldentuz. Haurraren aldartea ikusirik, aurreko astean etxera deitu eta amarekin egon zinen hizketan: badirudi ama laguntzeko prest dagoela baina aitaren jarrera itxia da eta honen ondorioz haurra triste etortzen da eta egunero egiten du negar.

Haurraren garapen osoa bermatze aldera zein izango da maisu-maistraren eta ikastetxearen jarrera bertako elkarkidetzan?

### 2. KULTURANIZTASUNA ETA HEZKUNTZA

D ereduko HH4-ko gela batean irakasle zara. Haurren erdiek euskaraz hitz egiten dute etxean, beste erdiek gaztelaniaz. Aurten hiru lagun berri etorri zaizkigu: Valentina Nikaragutatik, Mohamed Marokotik eta Sundari Nepaletik. Valentinak gaztelaniaz hitz egiten du, euskaraz oraindik ez daki. Mohamedek arabieraz egiten du, eta zer edo zer ulertzen du gaztelaniaz (euskaraz ez). Sundarik, berriz, etorri berria, soilik nepaleraz daki. Egoera horren aurrean, erronka bikoitz bat duzu; batetik, etorkinek euskaraz ikastea eta euskal kulturari murgiltzea, eta bestetik, bertakoek etorkinen kulturarekiko eta hizkuntzarekiko begirunea izatea. Hori nola landu asmatu beharrean zara...

### 3. SENTIMENDUEN ETA EMOZIOEN ERREGULAZIOA

Guraso bilera batean haur baten gurasoek beren kezka azaldu dute: *Hansel eta Gretel* ipuina lantzen hasi direnetik 4 urteko semea urduri sumatzen dute. Gauez gaizki lo egiten du eta oso aldarte aldakorra erakusten du. Gelako beste haurrengan ere zerbait sumatu ote duten jakin nahi dute, ipuinak haurraren egoeran eragin zuzena izan dezakeelakoan.

### 4. EGOKITZAPEN- PROSEZUA

Irailaren hasiera da. Auzoko ikastetxean bi urtekoen gelako irakasleek egokitzapen-prozesua zehatz-mehatz prestatu dute ikastetxeko zuzendaritzarekin batera. Baita gurasoei azaldu ere: ikasturtea hasi eta lehen bi asteetan, haurrek nagusi batekin etorri behar dute gelara. Lehen astean, ordu t'erdi bakarrik emango dute ikastetxean eta tarte horretan haurraren kargua duen nagusiak gelara sartzeko aukera izango du. Bigarren astean berriz, goiz osoa pasako dute haurrek ikastetxean eta nagusiak gelatik kanpo egongo dira, haurrek gelatik irtetea aukeran izango dutelarik. Hirugarren astean gelako martxa "normalari" ekingo diote.

Ainara eta Aritz, bi urteko umeak, auzoko ikastetxean hasi dira.

Ainararen gurasoak kanpokoak dira, biak lanean ari dira eta Ainararen egokitzapen-prozesua egin ahal izateko Ainararen amak oporrak hartu behar izan ditu. Ainara oso erraz egokitu da, hirugarren egunerako ez da amarengana hurbiltzen eta honek, egoera ikusita, gelako irakasleari hurrengo egunean ez gelditzea eskatzen dio...

Aritzi, berriz, izugarri kostatzen ari zaio egokitzea. Bi aste pasa dira eta oraindik aitarengandik ez da bereizten. Aitak, orduan, Aritzen egokitzapen-prozesua luzatzea eskatzen du ikastetxean...

Ainararen amak zein Aritzen aitak ezezko erantzuna jasotzen dute ikastetxetik...



### **5. ELKARBIZITZA**

Lau urtekoen gelan bi ikasle berri gelaratu dira ikasturtearen erdian. Irakasleak eta ikasleek ongi onartu badituzte ere, denbora gutxira ,ikasgelako funtzionamendua eragozten duten jarrerak azaltzen hasi dira: bortxazko jokabideak, errespetu faltarekin loturiko ekintzak, elkarbizitza-arauen urraketa...

Irakaslea kezkatu dago eta elkarbizitza berreskuratzeko konponbideak bilatzen hasi da.

### **6. ALARMA GARAIA**

Aitorrek duela hiru urte bukatu zituen Haur Hezkuntzan irakaslea izateko ikasketak. Oso pozik dago, lehen aldiz bera bizi den ondoko ikastetxe kontzertatu batean ordezkapen bat egiteko deitu baitute. Ordezkapena bi urtekoen gelan bete behar du Aitorrek. Bertan Malen dago. Malenek pixoihala erabiltzen du oraindik eta Aitorrek egunean bizpahiru aldiz aldatu behar izaten dio pardela.

Malenen gurasoek ikastetxeko zuzendariarekin hitz egin dute eta beren alabaren gelan gizonezko irakaslerik ez dutela nahi esan diote.

### **7. ESPAZIOEN EGOKITASUNA ESKOLAN**

Haur Hezkuntzako eskola bateko zuzendaritza taldeko kideak zarete eta pedagogia berritzaileetan oinarritutako hezkuntza eskaintzen duzue, baina hori ez dator bat eskolako hainbat espazio arkitektonikorekin (patioko lurra gogorra da, eskolako sarrera ez da egokia, pasilloak ez daude ondo argiztatuta...). Hori dela eta gurasoak kezkatzen hasiak dira. Arazo horren aurrean erronka berri bati heldu behar diozue, haur hezkuntzako eskolek izan behar dituzten baldintza arkitektonikoak ezagutu eta horren arabera proposamen berri bat aurkeztu gurasoen aurrean.

### **8. HAURRAK ETA HERIOTZA**

Anek bost urte ditu eta oso neska alaia eta maitatua da gelan. Bere gurasoak lan egiten dutenez, jeneralean amonarekin joaten da eskolara eta honen etxean bazkaltzen du egunero. Asko maite du Anek bere amona. Zoritxarrez, orain bi aste amona gaixotu eta handik egun gutxitara hil egin da. Geroztik Ane triste dabil, burua altxatu ezinik eta ez du ezertako gogorik. Gelakideek ez dute oso ongi ulertzen zer gertatu den baina ez dute Ane triste ikusi nahi.

Tutorea gaia nondik eta nola heldu pentsatzen hasi da, Ane eta talde osoa kontuan hartuz.

### **9. ALERGIAK ETA INTOLERANTZIAK**

Irakasle berria zara Eskola batean, 5 urtekoen bi talde daude eskolan eta Eskola buruak eskaera berezia egin dizu: Urte hauetan alergia eta intolerantzia mota ezberdinak dituzten haurren kopurua asko handitu da. Aurreko urtean zenbait arazo egon ziren gai honekin, tutoreek ez zuten argi hainbat kontzeptu eta jokabide. Zure lana izango da alergia eta intolerantziari buruzko analisia egitea (zer diren, nola ekidin, zenbat haur dauden klase bakoitzean, nola jokatu...) Horrela eskolako bi klaseetako tutoreei laguntza eskainiko diezu alderdi hauetan.

### **10. JOLASTOKIA ETA ESKOLA KANPOKO ESPAZIOAK**

Eskola berri batean eman duzu azken urtea eta antzeman duzu haurrek ez dutela kanpoko espazioa apenas erabiltzen. Eskola eremu urbanotik urrun samar dago, landaz eta baserriz inguratua. Testuinguru horretan, haurrek jolastokian denbora gutxi ematen dute, eta hau ere ez da oso erakargarria: Lehen Hezkuntzakoekin konpartitzen dute eta kirolerako espazioa dago, belar bazter batzuk eta gerizpe gutxi. Hurrengo urtean jolastoki honi eta eskola kanpoko espazioei probetxu gehiago atera ahal izateko aukera berriak proposatzea erabaki duzu.

## 5. Ebaluazioa eta entregatzekoak

---

### 5.1 Kalifikazioari buruzko zehaztapenak

Atal honetan azalduko duguna:

- a. Zer ebaluatzen den.
- b. Nortzuk ebaluatuko duten.
- c. DILANen nota zenbatekoa den, irakasgaia bakoitzean.

a. Ebaluazioan bakarka eta taldean egiten diren lanak hartuko dira kontuan:

-Bakarkako lana: B (0.3).

-Taldekoko lanak hiru izango dira: T1 (0.1), T2 (0.4) eta T3/A (0.8)

T1: Hautapenaren justifikazioa. Arazoa eta hipotesiak. Funtzionamendu arauak: Hitzarmena (urriak 10).

B: Informazioaren bilketa eta analisisa (urriak 27).

T2: (T2-1) Informazioaren sintesia (azaroak 3). Arazoaren (ber)definizioa. Aurreko atalei buruzko txostena.

(T2-2) Proposamen didaktikoaren lehen zirriborroa (proposamen didaktikoaren ideiak lantzen hasi).

(T2-2) Azken txostena: proposamen didaktikoa (abenduak 15ean entregatzeko). AKTAK: 2 akta.

T3/A: DILAN lanaren aurkezpena: Narrazio Kreatiboa / defentsa (otsailak 15 eta 16). Asistentzia derrigorrezkoa da: GA-1 /GA-2. AKTAK: 3 akta.

Ikasturte osoko modulua denez eta irakasgaietako bi lauhilekoak direnez, kalifikaziorako bi une izango dira:

- Urtarrileko deialdikoa: B, T1 eta T2 ebaluatuko dira eta Pentsamendu Matematika eta bere Didaktika eta Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzan irakasgaietan, azken notan agertuko da.
- Maiatzeko deialdikoa: lehen lauhilekoan egindakoak eta T3/A. Urte osoko irakasgaien azken notan joango dena.

b. Modulua ebaluazioan gutxienez bi irakaslek hartuko dute parte, horietako bat tutorea izanik.

c. Irakasgaien azken notan moduluak izango duen balioa:

- Lehen lauhilekoko ikasgaietan: 0.8 gehienez.
- Urte osokoetan: 1.6 gehienez.

Oharra: DILAN egiten ez duen ikasleak, irakasgia bakoitzaren irakaslearekin adostu beharko du azken emaitza.

## **5.2. Ebaluazio irizpide orokorrak**

(Irizpide hauek Graduako konpetentzietan oinarrituta daude)

### **1. Atala (Bakarkakoa + taldekoa)**

1. Gaiari buruzko oinarri teoriko sendo eta kontrastatu bat aurkeztea.
2. Bakarkako lanetik taldeko lanera egindako prozesuaren justifikazioa, argudioa eta dokumentazioa, egokia izatea.
3. Planteaturiko agertokiari irtenbide bat baino gehiago bilatzea, eta behin betikoa justifikatzea.

## **5.3. Gaitasun bakoitzari dagozkionak**

Lehenengo Konpetentzia:

- 1) HHko eszenatokien informazioa biltzen du.
- 2) Bere gain hartzen du eszenatokien informazio biltzea.
- 3) Ekarrirako informazioa besteenarekin alderatzen dute.
- 4) Besteekiko jarrera irekia erakusten du.

Bigarren Konpetentzia:

- 1) Informazioa liburuetatik, aldizkarietatik, datu baseetatik eta hezkuntzako eragileengandik hartzen du.
- 2) Informazioa ordenatzen eta sailkatzen du.
- 3) HHko umeen esperientzia eremuak islatzen ditu.
- 4) Besteen iritzien aurrean malgutasunez jokatzeko du.

Hirugarren Konpetentzia:

- 1) Hezkuntza mailako irtenbideak aurkitzen saiatzen da.
- 2) Egoera praktikotara egokitutako proposamenak alderatzen ditu.
- 3) Lehen haurtzaroko esku-hartze proposamenak idatziz adierazten dituzte.
- 4) Taldekideen artean adostasunez jokatzeko dute.

Laugarren Konpetentzia:

- 1) Sormena eta originaltasuna adierazten du Haur Hezkuntzako arazoaren konponbidea errepresentatzen duenean.
- 2) Irudimena eta baliabide artistiko anitzak erabiltzen ditu.
- 3) Besteen aurrean beldurrik gabe agertzen da.
- 4) Ikaskideengan, Haur Hezkuntzako aztergaien (nutrizioa, espazioa..) inguruko gogoeta eta parte hartzea bultzatzen du.

## 6. Lana egiteko irizpideak eta zergatia

Haur Hezkuntzako graduan derrigorrezkoa da euskarazko B2 maila. Graduatzearekin batera C1 maila aitortzen da. Graduaren titulua C1aren baliokide izango da Euskal Autonomia Erkidego sektore publikoan. Horregatik, beharrezkoa da graduko bigarren eta hirugarren mailako ikasgaietan gutxieneko B2+ maila islatzea, ahozko zein idatzizko komunikazioan.

### T1 LANA EGITEKO IRIZPIDEAK

Lanean, modu narratibo batean azalpen testu osatu batean (alegia ez eskema gisara, narrazio txiki bat eginez baizik) honakoak kontatu behar dituzue:

- Gaiaren hautapenaren justifikazioa (gaiak nola zerrendatu zenituzten eta zergatik, nola hartu duzuen egokitu zaizuen gaia...)
- Zalantza, hipotesi, ideia eta balizko konponbideak eta erantzunak
- Taldearen funtzionamendua: nola hartu duzuen taldeen banaketa eta nola antolatu zareten lanari ekiteko.

Ez dugu zehazten lanaren luzera. Talde bakoitzaren esku uzten dugu, beti ere testuaren izaera narratiboa azpimarratzen dugularik.

Lana tutoreari bidali behar diozue e-mailez (urriak 10).

### BAKARKAKO LANA EGITEKO IRIZPIDEAK

Bigarren lana bakarkako lana da. Honek esan nahi du taldekide bakoitzak, alegia nork bere aldetik, informazio bilatu, aztertu eta bertatik ondorioak atera behar dituela.

Ondoren, arazoari beste buelta bat eman behar dio. Izan ere jasotako informazioak, behin huraxe aztertu eta hausnartu ondoren, ikasle bakoitzak gaiaren aurrean zituen ikuspuntua eta iritziak aldatu edo sendotu egingo ditu. Arazoa berdefinituko du, alegia.

Honekin guztiarekin **taldekide bakoitzak** txosten bat burutu behar du non honakoak bilduko dituen:

1. Informazioaren bilketa, analisisia eta sintesia
  - a. Zer pauso eman ditut gaiaren inguruko informazioa biltzeko? Iturri fidagarriak dira? (artikuluak, liburuak, bideoak, musika, elkarrizketak, bisitak...)
  - b. Zer informazio bildu dut?
  - c. Bildu ditudan informazio guztietatik zer da adierazgarria?

2. Arazoaren (ber)definizioa
  - a. Nola ikusten dut orain arazoa?
  - b. Aldatu al da nire iritzia?
  - c. Nola arrazoituko nuke nire oraingo jarrera?
  - d. Zer zalantza berri sortu zait?
  - e. Zein litzateke eman beharreko hurrengo pausoa?

**OHARRA:**

Idatzizko txostena gardena eta zuzena izango da (euskaraz argi idatzia), eta aurrekoan bezala azalpenezko testu bat osatu beharko da.

### **T2-1 eta T2-2 LANAK EGITEKO IRIZPIDEAK**

Lehen lauhileko azken lan honetan orain arteko prozesuaren sintesia egin beharra dago. Horretarako, berriro ere talde lanari ekingo diogu, bakoitzak egindako txostenetik abiatuta.

**T2-1 lanak (azaroak 3an entregatzeko)** honakoak bilduko ditu:

- **Informazioaren sintesia.** Atal honetan informazio-iturri guztiak zerrendatu eta erreferentziatzeaz gain, ondoriorik adierazgarrienak aipatu behar duzue.
- **Talde-etzabaidaren laburpena.** Hemen taldekideen artean izan duzuen eztabaida ahalik eta zehatzen deskribatzea interesatzen zaigu: non bildu zineten, zenbat denboraz, eta batez ere, zer argudio plazaratu ziren, nork plazaratu zituen eta nola arrazoitu zen argudio bakoitza. Bileraren deskribapen zehatza alegia.
- **Arazoaren (ber)definizioa.** Azken puntu honetan talde bakoitzak arazoa nola ikusten duen, zer egingo lukeen eta zergatik adierazi behar ditu.

**T2-2 (abenduak 15ean entregatzeko): Proposamen didaktikoa.** Azken entrega abenduak 15an izango da, baina lehen zirriborroa azaroak 3rako aurkeztu behar da..

Talde-txosten honekin bukatutzat emango dugu diziplinarteko lana oraingoz eta bigarren lauhilekorako prozesu osoaren inguruko narrazio kreatiboa utziko dugu.

**T3 (otsailaren 8tik 16-ra): Narrazio Kreatiboa. Nola? Zergatik? Irizpideak**

### **NARRAZIO KREATIBOA:**

- **Zergatik horrelako diseinua eta ez-ohikoa?**
- **Nola gauzatu? Baldintzak:**

Narrazio kreatibo honek komunikaziorako adierazpen ezberdinak bere baitan jaso behar ditu garapen integral baten testuinguruan:

- a. Musika: ikasle guztiek parte hartu behar dute interpretazioan: musika, gorputz adierazpenaren bitartez, musika tresnak erabiliz... taldeak sortu edo interpretatu beharko du aurkezpenerako musika.

- b. Plastika: eszenatokiaren diseinua; zein objektu, irudi, ilustrazio, argi, baliabide plastikoak, e.a. erabili erabakiko dugu eta elementu horiek bildu edo sortuko dituzue.
- c. Garapen Psikomotorra: gorputza espaziotik nola mugitu aztertuko dugu; taldeak antzezpenerako “zirkuitua” sortuko du.
- d. Hizkuntzaren didaktika eta atzerriko hizkuntza: ahozko hizkuntza eta literaturaren erabilera eta honen adierazpen guztiak (irakasgaian gelan esandakoak kontuan izan daitezke) elkarrizketa, jolasa, antzerkia eta dramatizazioa, onomatopeiak, poesia, kanta...
- e. Literatura: hari narratiboaren eraiketa; istorio ezberdinen erabilera...

**- Narrazio kreatiborako hainbat ideia**

**- Zergatik horrelako diseinua eta ez ohikoa?**

Komunikazio gaitasunak garatzea garrantzitsua iruditzen zaigu, irakasle baten gaitasunak modu ezberdinetan (multimodala) komunikatzen jakitea garrantzitsua baita. Proiektuak eta hezkuntza-ikerketak era ezberdinetan dokumentatzea eta modu ezberdinetan azaltzea beharrezkoa ikusten dugu XXI. mendean irakasle izango denarentzat. Testu idatzia erabiltzeaz gain, beste formatu batzuk erabiltzeari garrantzitsu deritzogu: ikus-entzunezkoa, imajinak, gorputz adierazpena, audioa edo musikaren bitartez, e.a.

**Narrazio kreatiboa (T3) sortzeko unean kontuan hartzeko zenbait IRIZPIDE**

1. Narrazio kreatiboa ez da, **inolaz ere**, aurkezpen formal bat. Beraz, ez duzue PPT aurkezpenik prestatu behar.
2. Lehen lauhilekoan egindako idatzia oso kontuan izan behar duzue narrazio kreatiboa sortzeko unean, horixe izango baita narrazio kreatiboaren abiapuntua eta oinarria.
3. Narrazio kreatiboaren **helburua ez da txosten idatzia kontatzea** baizik eta gainerako ikasle zein irakasleengan interesa sortzea zuek landu duzuen eszenatokian.
4. **Lehen pausoa gidoi moduko bat prestatzea da**: zuen eszenatokian zer iruditzen zaizue dela transmititu beharrezkoa ezinbestean? Hauxe izango da zuen narrazio kreatiboaren hari gidaria!!
5. Zein dira besteengan zuen eszenatokirako interesa sortu dezaketen egoerak, elkarrizketak, irudiak, musikak, ipuinak, poemak, dramatizazioa, ahotsaren

erabilera (hitzik gabeko elementu guztiak), argien erabilera... Hauexek izango dira narrazio kreatiborako baliabideak.

6. Aurreko bi puntuak ongi aztertu ondoren biak uztartzeko euskarririk egokiena bilatu behar duzue: antzerkia, bideoklipa, rol-playing, dantza, gorputz adierazpen mota guztiak, ipuin ilustratua, argitzaliak, txotxongiloak... (bat baino gehiago ere izan liteke).
7. Aurkezpeneko fitxa bete (txosteneko 21. orrialdean dagoen 3. eranskina) eta talde bakoitzak bere tutoreari entregatuko dio, aurkezpena baino zenbait egun lehenago.

**OHARRA:** Idatzizko txostena gardena eta zuzena izango da (euskaraz argi idatzia).

### **Narrazio kreatiboa (bestelako kontuak)**

- Aurkezpenak (galderak eta solasa barne) gehienez ere 30 minutu iraungo du eta bertan narrazio kreatiboaz gain bestelako estrategiak ere erabil daitezke (galderak bota, eztabaidak sortu...)
- Otsailaren 8tik 16ra ez da eskolarik izango eta horixe izango duzue narrazio kreatiboari azken ukituak emateko aukera
- Aurkezpen guztiak otsailaren 15ean eta 16an egingo dira, denak psikomotrizitate-gelan baldin eta talderen batek beste espaziorik eskatzen ez badu.
- Talde bakoitzaren aurkezpenetara (GA1–GA2) etorri beharra dago. Alegia, ni GA1eko partaidea banaiz GA1eko aurkezpen guzti-guztietara etorriko naiz.

## **ESKU-HARTZEAREN INGURUAN**

---

A.

HAUR HEZKUNTZAKO HAURREI ZUZENDUTAKO ESKU-HARTZEA

**OHARRA: JARRAIAN DATOZEN ATALAK OSATZEKO HAUR HEZKUNTZAKO CURRICULUM BERRIAZ BALIATU**

**UNITATEA: (ESZENATOKIAREN IZENBURUA)**

**MAILA: (HAUR HEZKUNTZAKO ZEIN MAILATAN)**

**IKASTURTEA: 2023-24**

OINARRIZKO KONPETENTZIAK: (Haur Hezkuntzari erantzuten diotenak)

- 
- 
- 

HELBURU OROKORRAK: (Esperientzia eremuekin lotura dutenak)

- 
- 
- 

EREMUA, KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA ETA OINARRIZKO JAKINTZA: (Haur hezkuntzako curriculumak)

- 
- 
- 
- 

EBALUZIOA IRIZPIDEAK: (ezarri ditugun helburuekiko ebaluazio irizpideak)

- 
- 
-



## ESKU-HARTZEAREN ZEHAZTAPENA: SEKUENTZIEN AZALPENA

1. SEKUENTZIEN KOPURUA: Hiru eta bosten artekoa. Gaiaren gerturatze batetik abiatu eta arazoaren irtenbidera heltzeko behar adinakoak.
2. Sekuentzia bakoitzak jarduera desberdinak biltzen ditu.
3. Bideragarriak eta esku-hartze orokorrari begira egokiak iruditzen zaizkigun jarduerak (ez ditugu jarduera zerrenda amaigabeak osatuko)
4. Jarduera bakoitzaren barruan: hurrengo adibidean agertzen diren puntuen berri eman.

### I. SEKUENTZIA: GAIARI GERTURATZEA

JARDUERA	DENBORA	IKASLE TALDEAK	IRAKASLE ROLA	BALIABIDEAK

Eta gauza bera sekuentzia guztiekin.

#### 5. ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

[B.]

GURASOEI, KLAUSTROKIDEEI, IRAKASLEEI... ZUZENDURIKO ESKU-HARTZEA BADA

---

Esku-hartzea bestelako eragileei zuzendua bada, garatu esku-hartze horretan burutuko diren jarduerak, sekuentzia desberdinetan bilduz eta helburuak zehaztuz.

#### OHARRA: DIZIPLINARTEKO LANA

Talde bakoitzak erabakiko du zein unetan eta nola uztartzen dituen esparru desberdinak.

## 7. ERANSKINAK

---

### 1 ERANSKINA –HITZARMENA–

Haur Hezkuntzako Graduan zehar hamaika talde lanetan ibiliak zarete, eta badituzue talde lanean aritzearen hainbat bizipen eta jakintza.

Izandako esperientzietan oinarrituta, eta talde lanean aritzeko saihestu nahiz sustatu beharreko praktikak kontutan hartuz, elkar-lana bermatzeko HITZARMEN sinboliko bat adostea eta idaztea eskatzen dizuegu. HITZARMEN horren bitartez zuen talde-lana arautuko da, elkar-lana bermatzeko jokaerak koiziente eginez eta konpromisoak hartuz. Lana aurrera doan heinean, problema edo beharrian berriak sortu hala, HITZARMENA berrikusia eta berridatzia izan daiteke, baina prozesu osoan presente izango dugun zerbait izango da elkar-lana bermatze aldera.

Aukeratutako edota esleitutako gaiaren hautapenaren justifikazioarekin batera (T1), talde bakoitzak bere HITZARMENA eratuko eta aurkeztuko du eta tutoreari bidaliko zaizkio.

HITZARMENA arautu eta idatzi aurretik, zenbait punturen inguruko hausnarketa egitea gomendatzen da, besteak beste, honako galdera hauei erantzunez:

Orain artean nolakoak izan dira nire lan taldeak? Nola funtzionatu dute? Zeintzuk dira talde lanean aritzeak sortarazten dizkidan eragozpenak? Eta nahiak? Zer eskaini dakioket taldeari?

Hemendik aurrera nola funtzionatuko du taldeak? Zein arau ezarriko ditugu? Zein konpromiso hartzeko prest nago? Zein konpromiso hartuko ditugu taldeko partaideek?

Gogoratu talde lan on batek, oro har, zera behar duela: taldeko partaide guztiak entzutea, denei parte hartzeko aukera luzatzea, elkarri laguntzea, galderak egitea, ideiak elkarri azaltzea eta arrazoitzea.

Gehiagorako: Mercer, N., Hargreaves, L. & García-Carrión, R. (2017). *Aprendizaje e Interacciones en el Aula*. Barcelona: Hipatia. 46. orr.


Gogoeta hauetatik abiatuta zuen elkar-lana arautuko duen HITZARMENA adostu eta idatziko duzue. Azpian atxikia dator, adibide gisara, HITZARMEN orria:

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

### **5. DIZIPLINARTEKO LANA**

**Taldea:**  
**Ikasleak:**

### **GURE HITZARMENA**



**Lekua eta data:**  
**Sinadura:**

## 2 ERANSKINA –AKTA EREDUA-

# AKTA EREDUA

Eguna:	Ordua:	Iraupena:
--------	--------	-----------

Bertaratuak:

Etorri ez direnak:

Ezin etornia adierazi dutenen arrazoiak:

Bileraren helburua:

Bilera honetarako bakoitzak hartu zituen konpromisoak bete ditu:

Bileraren garapena (Hitz egindakoa, zalantzak...):

Norberaren ekarpenak:

Hartutako erabakiak eta konpromisoak:

Egitekoen banaketa:

Egiteko gelditu direnak:

Bestelakoak:

### 3 ERANSKINA – AURKEZPENERAKO FITXA-

#### DATUAK

Ikasturtea:

Gradua:

Maila:

#### TALDEA:

Aurkezpenaren izenburua:

Taldekideak (izen abizenak eta email-a):

1.

2.

3.

4.

ISTORIOAREN LABURPENA:

AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK:

ITURRIAK (Testuak, musika, irudiak eta hauen egileak)

#### 4 ERANSKINA - EBALUAZIOA ETA IRIZPIDEAK

	TXOSTEN TEORIKOA (T1 - T2)	EBALUAZIO TRESNA	NARRAZIO KREATIBOA	EBALUAZIO TRESNA
<p><b>Lehenengo Kompetentzia:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ HHko eszenatokien informazioa biltzen du.</li> <li>➤ Bere gain hartzen du eszenatokien informazio biltzea.</li> <li>➤ Ekarrirako informazioa besteenarekin alderatzen dute.</li> <li>➤ Besteekiko jarrera irekia erakusten du.</li> </ul>	1. Gaiari buruzko oinarri teoriko sendo eta kontrastatu bat aurkeztea.	B (0.3)	1. Partaidetza (1-2-3-4)	T3 (0.8)
<p><b>Bigarren Kompetentzia:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Informazioa liburuetatik, aldizkarietatik, datu baseetatik eta hezkuntzako eragileengandik hartzen du.</li> <li>➤ Informazioa ordenatzen eta sailkatzen du.</li> <li>➤ HHko umeen esperientzia eremuak islatzen ditu.</li> <li>➤ Besteen iritzien aurrean malgutasunez jokatzeko du</li> </ul>	2. Bakarkako lanetik taldeko lanera egindako prozesuaren justifikazioa, argudioa eta dokumentazioa, egokia izatea.	T1 (0.1)	2. Taldearen jarrera (3)	
	<p><b>Hirugarren Kompetentzia:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hezkuntza mailako irtenbideak aurkitzen saiatzen da.</li> <li>➤ Egoera praktikoa eragokituaren proposamenak alderatzen ditu.</li> <li>➤ Lehen haurtzaroko esku-hartze proposamenak idatziz adierazten dituzte.</li> <li>➤ Taldekideen artean adostasunez jokatzeko dute.</li> </ul>	3. Planteaturiko agertokiari irtenbide bat baino gehiago bilatzea, eta behin betikoa justifikatzea.	T2-1 (0.2)	
<p><b>Laugarren Kompetentzia:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Sormena eta originaltasuna adierazten du Haur Hezkuntzako arazoaren konponbidea errepresentatzen duenean.</li> <li>➤ Irudimena eta baliabide artistiko anitzak erabiltzen ditu.</li> <li>➤ Besteen aurrean beldurrik gabe agertzen da.</li> <li>➤ Ikaskideengan, Haur Hezkuntzako aztergaien (nutrizioa, espazioa..) inguruko gogoeta eta parte hartzea bultzatzen du.</li> </ul>	4. Hizkuntzaren egokitasuna, zuzentasuna, argitasuna.	T2-2 (0.2)	4. Sormena, originaltasuna (4)	
	5. Erreferentzia bibliografikoaren aniztasuna, erabilgarritasuna (txosten osoan erabiltzea).		5. Irisgarritasuna, sentsibiltatea (4)	
	6. Proposatutako irtenbide edo planteamenduak hausnartzea, justifikatzea (errealitateari egokitasuna eta teorikoki oinarrituta).		6. Ekarpene kulturala (4)	
	7. Jarrera, inizatiba eta interesa aurkeztea: bai orokorra taldekakoa eta bakarkoa.			
<p><b>OHARRA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Urtarrileko deialdia:</b> B, T1 eta T2 ebaluatuko dira eta "Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika" eta "Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzan" irakasgaietan, azken notan agertuko da. <b>Lehen lauhilekoko irakasgaietan gehienezko nota 0.8. izango da.</b></li> <li>- <b>Maiatzeko deialdia:</b> lehen lauhilekoan egindakoa eta T3-a. urte osoko irakasgaietan azken notan joango da. <b>Urte osoko irakasgaietan gehienezko nota 1.6 izango da.</b></li> </ul>				